

# LIBURU ESKAINTZA

2020ko Negua

**aek**  
euskara praktikoa

Liburuak irakurriz eta irakurriz dena ikasten zela uste zen antzina. Gaur egun badakigu den-dena ez dagoela liburutik; euskara ikasteko ere liburuak baino gauza gehiago behar ditugu, bai. Halere, liburuak hortxe jarraitzen dute eta, guzti-guztia ekarri ez arren, kontu ugari aurkituko dituzu.

Batzuek euskara ikasten lagunduko dizute: euskaraz idatzitako istorioak, historiak eta poemak. Horietan, benetako eta fikziozko euskaldunak zuri mintzatuko zaizkizu liburutako hitzen bidez, eta irakurriko dituzu hainbat izen, aditz, berba, pasarte eta paragrafo zuretzat patxadaz prestatuak, patxadaz irakur ditzazun.

Beste batzuek, berriz, euskara ikasten ari zarela ahantzaraziko dizute. Ezagutuko dituzu lekuak, pertsonak, istorioak eta sentimenduak: poza, beldurra, barrea, haridura... Murgilduko zara letren itsaso batean, eta hantxe gozatuz euskara ikasiko duzu euskara ikasten ari zarela ahaztuta.



## JOEMAK ETA POLASAK

Iñigo Astiz Martinez, Maite Mutuberria (il.)

Jolas egiteko poema-liburu ilustratua. Ume listoentzat edo heldu tontoentzako poema liburua da hau. Iñigo Astiz idazleak eta Maite Mutuberriak jolasean eginikoa, poemaz eta ilustrazioez osatua. Jostaria eta umoretsua ez ezik, iradokitzailea eta sortzailea. Ondo pasatu eta hitzen eta ilustrazioen indar iradokitzaileaz gozatzeko.

**Maila:** B2    **Prezioa:** 13,91 €    **Orr:** 72    **Urtea:** 2019



## DENDAOSTEKOAK

Uxue Alberdi Estibaritz

Jostuna bata, brodatzailea bestea. 70eko hamarkada bukaeran ireki zuten denda, gurasoen etxean lan egiteaz nekatuta, eta liburu politikoak eta diskoak gehitu zizkieten ordura arte erabilitako kakorratz, makina eta hariei. Marx eta mertzeria. Aitak esan zien emateko tokia tailerrari eta almagari: "Funtsezkoa ezkutuan egiten da". Han josten dute geroztik, han brodatzen, hantxe gordetzen dituzte moztarrok egiteko oihalak, edo banatzaileari itzuli beharreko liburuak. Dendaostean entzun dute musika lagunekin, edo abortatzeko eskubidearen aldeko manifestazioetarako prestatu, edo mendi irteeretarako.

Botoi bat josi liburu bat gomendatu artean, eta diskoak saldu txapelak brodatu ondoren. Eta, bitartean, uholdeak, tiro hotsa, kalea, ardoa, jaiotzak eta heriotzak. Denda baten kronika literarioa idatzi du Uxue Alberdik eta, bide batez, garai batena ere bai. Memoriaren dendaostetik.

**Maila:** C1    **Prezioa:** 18,00 15,30 €    **Orr:** 216    **Urtea:** 2020



## MIÑAN

Amets Arzallus Antia

Gineako hiriburutik Nzerekorera mila eta hirurehun bat kilometro daude. Ibrahima han ibili zen hiru edo lau urtez, kamioi batean, gidari batek aprendiz onartu zuelako. Aste batean Konakrytik Nzerekorera joaten ziren, eta hurrengo astean Konakryra itzuli. Egun batean amak deitu zuen arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen. Basamortua gurutzatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileekin topo egin; egarria, gosea, mina ezagutu. Afrikatik Europarako bidea. Mediterranea zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertsala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du. Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da nobela hau, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Berezia duelako zauria, eta berezia kontatzeko manera. Hitz egitean han balego bezala.

**Maila:** B2 **Prezioa:** ~~17,50~~ 14,90 € **Orr:** 152 **Urtea:** 2019



## JENTILAK: EUSKAL MITOLOGIAREN AZKEN SEKRETUA

Aritza

Joseba Etxebarrieta Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaslea da Antropologoa Sailean eta, gure herriaren kultura, sinesmen eta ohiturei dagokienez, aditu nagusienetakoa dugu. Hori dela eta, euskal mitologiaren hedatzaile handia izan zen Aita Barandiaran isilpean gordetzen saiatu zen idazki batean ostentzen den gertakari iluna argitzeko asmoa duen lantalde batera sartuko da. Antzinako izkribua ikerturik, garbiro lotu zuten belaunaldiz belaunaldi igarotako kondaira zahar batekin, bertan Jentilak nola galdu ziren azaltzen baita. Teknogiariak aurreratuena erabilia, baina, haratago iritsiko dira azterlanean, alegiazko akabera hura gertatu bide zen bazter-lekua aurkituko baitute. Honenbestez, hara joko dute, eta ustekabekoz jositako ikerketa bizi-bizia abiaraziko dute.

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~19,50~~ 16,60 € **Orr:** 360 **Urtea:** 2019



## ORRATZA ETA KALTEA

Joanes Urkixo Beitia

Ondarroa, 80ko hamarkada. Mikel zinegotzi aukeratu berri dute udal hauteskundeetan, eta ustekabeen heroinaren zabalkundearekin egingo du topo: gazteen belaunaldi oso bat munduari bizkar emanda bizi da, hauts zuria beste ametsik gabe, eta heriotza etorkizun bakar. Ia inoren laguntzarik ez izan arren, aurre egingo dio arazoari: nola lagundu gazte horiei droga uzten? Nork saltzen dizkie papelinak, eta, batez ere, nork ekartzen ditu herrira? Erritmo bizian kontatutako thriller bat duzu esku artean: elkarrizketa arinak, gertaera kateatuak, on eta gaiztoak, gorantz doazen ekintzak eta tiroten lehertzen den amaiera apoteosiko bat. On egin!

**Maila:** C2 **Prezioa:** ~~19~~ 16,15 € **Orr:** 208 **Urtea:** 2020



## ARRAKASTAREN APARRAK

Iñaki Irasizabal Izagirre

“Estutasun batean jarri eta nola erantzuten duen ikusi, horrek esango dizu nolakoa den gizakia”. Esaldi horrekin hasten da Iñaki Irasizabalen nobela beltz hau. Bertan topatuko ditugu arrakastaren aparretan ibilitako negozio-gizonak, zikinkerietan lardaskan dabilen kazetariak edo pistola errazegi dantzatzen duten gazte txoroak; baina, batez ere, bikote gazte “normal” bat, egun batean, legez kontrako baina inori kalterik egiten ez dion zerbait egiteagatik diru asko lortzeko aukera izango dutenak. Nola egin uko eskaintzari? Baina ba al dakite zein izan daitezkeen horren ondorioak, balizko konplikazioak, kontzientziako harrak...?

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~11,75~~ 10 € **Orr:** 116 **Urtea:** 2020



## **C'EST LA VIE" KANTATZEN DUTE ZAHARREK**

Karlos Zabala Oartzabal

Anton Pla, berrogeita bost urte inguruko hondarribiarra, bi seme-alabaren aita, lehen lorezain eta orain finka-administratzaile; larunbatetan aita alargunari bisita egiten dio Lesakan eta igande goizetan bere lagun Kinkori taberna garbitzen laguntzen dio Irunen. Gizon arrunta, inon arruntik bada, xehetasun txiki batengatik ez balitz: egun batez, hartarako arrazoi zehatzik eta bultzada jakinik gabe, atzeraka ibiltzen hasiko da. Xelebrekeria moduan hasi, eta azken muturreraino eramango du burutazioa Antonek, eta gauza bera nobelaren egileak: hari-muturretik tiraka, pertsonaiari segika ibiliko da hiru bat astez, uneoro gertatzen eta bururatzen zaizkionak kontatuz, eleberrri umoretsu bezain harrigarria onduz. Baina nor da Anton Pla benetan? Ustekabean famatu bihurtzen den inuxentea? Pailazo sakratuen moduan gizartearen arauak zalantzan jartzen dituen transgresorea? Paradoxikoa, kaotikoa, xaloa, sarkastikoa, adar-jotzailea, zentzugabea... Ezaugarri horiek guztiek definitzen dute pertsonaia, zeinak, gure ispilu deformatzailea balitz bezala, noiz barre lasaia noiz irri urduria eginaraziko digun.

**Maila:** C1 **Prezioa:** 19 16,15 € **Orr:** 196 **Urtea:** 2020



## **IBAIERTZEKO IPUINA**

Oihane Amantegi Uriarte

Ibai bat, Amerikako Estatu Batuetako hegoaldeko bazter galdu batean, zehazten ez den garai ia mitiko batean. Horra eleberrri labur bezain hipnotiko honen kokalekua. Eta ibaiaren ertzetan bizi den jendea: ezti biltzen duten nekazari zuri pobreak, ibaiaren bainatzen diren andre beltz mardulak, eta mundua bere magia guztian deskubritzen duen haurraren begiak, bizitzari nahiz heriotzari begira. Estreinaldi ausarta egin du Oihane Amantegik literaturaren munduan: estilo pertsonal bat onduz, idazkera dotorean, kontakizun original bezain indartsua lortzeko. Urrunean entzuten den hegoalde sakoneko harmonika-doinu bat bezain liluragarri eta malenkoniatsua.

**Maila:** B2 **Prezioa:** 12 10,20 € **Orr:** 100 **Urtea:** 2020



## **VHS**

Oier Guilan

"Zer gelditzen da zure ametsak bete gabe geratu ostean?", galdetu du llehoriak. "Pertsona are interesgarriago bat", erantzun dio detektibeak, jostalari. Victor aktorea Madrilen hil zen auto istripuz, pailazo sudurra jantzita, eta haren hiletara ez zen ia inor joan. Kasik 20 urte geroago, llehoriak detektibe emozional bat kontratatu du heriotza hura ikertzeko. Izan ere, zergatik hil zen istripuz Victor? Nork hil zuen inork hil ez zuena? Zer lotura du haren heriotzak elkar ezagutu zutenean grabatutako VHS zintarekin? llehoriak esku bat emango bailuke zinta hura berreskuratzearen. Ez du argi zeri buruz hitz egin zuten, baina gogoan du Merlinerekin Andaluziara egindako bidaia iniziatikoa, nola bisitatu zuten Lorcaren herria, nola ezagutu zituzten La Marabunta antzerki konpainiako kideak, nola izan zen hura guztia pizgarri bere ibilbide artistikoarentzat. llehoriak gorputz hartara itzuli nahiko luke, orduko sentsazioak berreskuratu, oroitu, baina ezin du. Agian memoria beti delako ariketa kolektiboa. Agian orduko lagunak behar dituelako gertatu zena gogoratzeko. Agian lagun baten heriotza konpondu ezineko matxura delako denboraren makinan.

**Maila:** C1 **Prezioa:** 21 17,85 € **Orr:** 336 **Urtea:** 2020



## **BAHIKETA**

Asel Luzarraga

Buenos Airesko La Hoz egunkarian luzetsita daude, Matxinen artikulua iristen ez delako. Ez artikulua, ez Matxin bera. Haren inguruko berririk ez dagoela jabetzeaz, alarmak piztu zaizkio Eduri, lagun mina baitu; Euskal Herriatik ihesi alde egin zuenean, Matxinek lagundu zion Argentinara. Bizi-bizi ari da Eduren burua, arriskuak ez baitira gutxi: ultra-eskuinak bahituko al zuen laguna, edo zerbitzu sekretuek? Nongotarrek, baina? Edo Euskal Herrira itzultzea erabaki ote du, berari ezer esan gabe? Sortuz gero inoiz desagertu ez diren beldurrak, mamuak, kontzientzia txarra, eldarnioak... Guztiak hasi dira dantzan Eduren baitan, bizitokiaren eta sorteriaren, iraganaren eta orainaren, errealtatearen eta fantasiaren arteko espiral zoro batean. Bahituta nor edo zer egon den ez jakiteraino.

**Maila:** C1 **Prezioa:** 15 12,75 € **Orr:** 140 **Urtea:** 2020



## ENE BAITAN BIZI DA

Maddi Ane Txoperena

Aitari zerbait entzunik, amaxiren bizipenen gibeletik abiatzen da Marie, Donibane Lohizuneko gaztea, Parisko ikasketak bururatzeko egin behar duen azken memoria lanerako. Ez zaio erraza suertatuko, ordea, amaxik ez baitiio nahi duena emanen, eta Mariek berak ere ez baitaki zeren bila dabilen, xuxen... Kutxa batean gotorturiko oroitzapen zatiak balira bezala jasoko ditu irakurleak Josefinaren gazte garaiko amets, pentsamendu eta bizi-minak, Mariaren begiradapetik. Askotariko istorioak gurutzatzen dira Maddi Ane Txoperena Iribarrenen lehen eleberrian: 1950.eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian eta Frantzia neskato ibilitako emakumeen errealitateak, lehengo eta oraingo maitasun eta desamodio istorioak, laneko sufrimenduak, gatazka politiko baten ondorengo testuinguru baten ezinak, amaxi-biloba eta alaba-guraso harreman korapilatsuak... Guzia etorkizunaren eta orainaren arteko zubi jolas batean.

**Maila:** C2 **Prezioa:** ~~18,50~~ 15,75 € **Orr:** 188 **Urtea:** 2020



## ZORIONTSUA IZATEA AUKERATU GENUEN

Mikel Ayllon

Anjak lana, familia eta sorterria utziko ditu, ezagutu duen maitearen atzetik joatearren; Marcok haurtzaroko mendietako mamuak ahaztu nahiko ditu itsas lainoen artean; Rosalía beretik eman eta eman ariko da, ordainetan deus gutxi eskatu gabe; Amaiak ez du bere institutuko lagunen moduan amaitu nahi; Izaskunek badaki beste pertsonen nola lagundu, bere buruarekin asmatzea falta...

Zoriontsu izan nahi dute istorio hauetako protagonistek, baina badakite zoriona ez dela iragarkietako zelofanetan bildutako opari hori; are, susmatzen dute, ahalegindugatik ere, ez zaiela trukean etorriko betiereko paradisuak. Baina ezin bertan goxo geratu, ezin etsi... Donostia Hiriko Kutxa Literatura Saria irabazi du Mikel Ayllonek ipuin-bilduma eder honi esker, non hitzek edertasuna bilatzen duten, non edertasuna istorio baten zerbitzura dagoen, eta non istorio horrek gogoeta eginaraziko digun bizitzaren zentzuak, eta baita geure bizimoduak ere.

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~14~~ 11,90 € **Orr:** 120 **Urtea:** 2020



## HOTZ INDUSTRIALA

Julen Belamuno

Lezetak hozkailu industrialak konpontzen egiten du lan, nahiko nekatuta dago eguneroko martxarekin, eta lankide antojagarri baten adarjotzeak aguantatu behar ditu gainera, emakume gazteago batekin duen harremanagatik. Euskal Herritik Berlinera egin zuen ihes Martinek 80ko hamarkadan, desagertzeko bulkada bati jarraituz, eta, denek ahaztu dutela uste duenean, euskaraz idatzitako gutun bat jasoko du. Belarriko minez farmazia irekitzeko zain dago artista bat, eta bere antz handia duen gizon dotoreago batekin egingo du topo, Isabelekin izan zuen harremana zelan hondatu zen gogoratzen duen bitartean. Bikote batek Errioxan erositako etxera hurbilduko da jabe ohien semea, zuhaitz bat ez botatzeko eskatzera. Italian koadro berezi batzuk agertu ostean, aspaldi ahaztutako pintore baten gaineko ikerketan murgilduko da Ander.

Bost ipuinez osatuta dago Julen Belamunoren Hotz industrial. Izoztutako txori baten begirada, paseo bat ontzi turistikoa laku hutsean, igelak koadro desitxuratueta. Egunerokotasunaren zama astunegia bihurtzen denean, lanegunaren amaieran hartutako tragoa ere izan daiteke itxaropena.

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~18~~ 15,30 € **Orr:** 216 **Urtea:** 2020



**ESANEZINAK**

Garbiñe Ubeda Goikoetxea

Segada madarikatu hartan hiru lagun hiltzen ikusi izanaren gainetik, baita telefonoz egindako mehatxuaren edo Martinek eragindako oinazearen gainetik ere, Kilopondioen malko itoek zulatu zioten barrena Larraitzi. Udako oporrak amaituta, Nizako aldiriak uzteko garaia iritsi zaionean, distantziaren aitzakian bazterrera utzitako gai horiei denei heldu beharko die, baldin eta aurrera egingo badu. Oroitzapenek jarriko dute egiara bidean, eta etxera iritsitakoan egingo dituen peskizek puzzlearen azken pieza aurkitzen lagunduko diote. Korapilo berri bat ere badu askatzeko, bere amaren sekreturik gordeenetako bat deskubrituko baitu Amatziri eta bere zahartzaroko demenziari esker.

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~11,15~~ 9,50 € **Orr:** 88 **Urtea:** 2020

**GEZURREN HABIA**

Jabi Elortza Antia

Bilbon. Asteburu bateko goizaldean. Alaba nerabea etxean agertzen ez dela-eta, Ertzaintzari deitu diote gurasoek. Agente pare bat ohikoa dirudien kasua ikertzen hasiko da. Alabaina, galdeketetan sakontzen duten neurrian mataza gero eta korapilatuago ageri da; orduak aurrera egin ahala gezurra gezurraren gain pilatzen dela sentituko dute ertzainek, eta ez dagoela familia horretan kiderik esaten duena sinetsiko diotenik.

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~16~~ 13,60 € **Orr:** 208 **Urtea:** 2020

**MAGALI EZ DAGO BAKARRIK**

John Andueza

Gazteen artean, emakumeen kontrako sexu-erasoak gaitzat hartuta, John Anduezak idatzitako azken liburua.

John Andueza gazte literaturaren unibertsora hurbildu da berriro. Oraingo honetan, istorio frenetiko batekin dator, erritmo bizian idatzia, irakurlea lehenengo lerrotik harrapatuko duena.

Tamalez, gaur egungo gizartean, puri-purian dagoen gaia jorratu du: emakumeen kontrako sexu-erasoen plaga. Gure herrietan, gure kaleetan, etxe-azpian bizitzen ari garen drama...

Egun zailak bizitzen ari dira Bergarako institutuan, egun ilunak, egun korapilatsuak. Duela hamabost egun, bertako bi ikasle gertakari tamalgarri batean nahastu ziren, biolentzia irrazionalaren atzapar zikinetan murgilduz. Geroztik, giroa endredatu samar dago: bai eskolan, bai herrian, eta, oro har, baita Debagoiena bailara osoan ere. Hain da mingarria biolentzia. Batez ere, neska-mutil gazteak kolpatzen dituenean...

**Maila:** C1 **Prezioa:** ~~12,95~~ 11 € **Orr:** 140 **Urtea:** 2019

**MIKEL LARSON**

Anthon Kazabon

Dantza kontuei zegokienez oso gustura zegoen Mikel, primeran zihokion dena, berak pentsatzen zuen bezalaxe. Bidea gero eta argiago, garbiago ikusten zuen. Buruan, orde, bazuen beste kontu bat aspalditik bueltaka, eta horretan ez zituen gauzak hain garbi ikusten. Mainerrekin hitz egin behar zuen lehenbailehen horretaz guztiaz, baina ez zekien nondik eta nola hasi. Txikitatik biak beti elkarrekin... Mainerrek asko maite zuen Mikel, baina hori ez zen nahikoa.

**Maila:** B2 **Prezioa:** ~~10~~ 8,50 € **Orr:** 80 **Urtea:** 2020

## ARIAN EUSKARA METODOA



**ARIAN A1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~23,50~~ 20 €



**ARIAN A1.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~12,75~~ 10,80 €



**ARIAN A1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~23,50~~ 20 €



**ARIAN A1.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~12,75~~ 10,80 €



**ARIAN A2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~25,50~~ 21,70 €



**ARIAN A2.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17~~ 14,50 €



**ARIAN A2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~25,50~~ 21,70 €



**ARIAN A2.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17~~ 14,50 €



**ARIAN B1.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak  
+ entzungaiekin)  
Prezioa: ~~23,50~~ 20 €



**ARIAN B1.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17~~ 14,50 €

## ARIAN EUSKARA METODOA



**ARIAN B1.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~25,50~~ 21,70 €



**ARIAN B1.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17~~ 14,50 €



**ARIAN B2.1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~20,50~~ 17,50 €



**ARIAN B2.1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~14,80~~ 12,60 €



**ARIAN B2.2  
IKASLEAREN LIBURUA**  
(CD + erantzunak + transkripzioak)  
Prezioa: ~~25,50~~ 21,70 €



**ARIAN B2.2  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~14,80~~ 12,60 €



**ARIAN C1  
IKASLEAREN LIBURUA**  
Prezioa: ~~25,50~~ 21,70 €



**ARIAN C1  
LAN-KOADERNOA**  
(+erantzunak)  
Prezioa: ~~17~~ 14,50 €


**TANGOA NOIZEAN BEHIN (+CD)**

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Aiestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 72

**OTSOA (+CD)**

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (il.)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 62

**BORROKALARI ARGITSUAK (+CD)**

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalaria argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalaria: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizitza menderatzeko.

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 72

**SIBERIAKO LOREA (+CD)**

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonia-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15€ **Orr:** 64





### NAIA CHINATOWN INGURUAN (+CD)

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, titaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero. Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufritzen du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 76



### ATZAPAR ARRASTOAK (+CD)

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura. Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorrigorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkirate- esan zuen ahots batek.

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 74



### KATU BELTZA (+CD)

John Milne / Kepa Orbe Ferreiro (il.)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 72



### NAIA INDIA GORRIETAN (+CD)

Alvaro Rabeli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baita lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 72



## ZISNEA ETA UHARTEA (+CD)

Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (il.)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hoteleraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64



## GEMINIKO NEBULOSA (+CD)

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotu bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 68



## IZU-ISTORIOAK (+CD)

Bram Stoker / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

"Drakula" bezalako izu-istorioak idazten maisu izan zenaren hiru istorio:  
- Epailearen Etxea - Burdinazko Emaztegaia - Abel Behenaren itzulera  
Mendekua da gai nagusia eta hirurak dira misteriozkoak eta hotzikara ematen duten horietakoak.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64



## ENIGMAK (+CD)

Georges Simeon / Bruno Hidalgo Garcia (il.)

Sei detektibe-istorio labur, Frantziako hainbat eskualdetan eta ingurune ezberdinetan kokatuak: G. 7, Altzariak mugitzen zituen mamua, Gorpua desagertu, Hans Peter, Monceau parkeko sutea eta Desagertuen gaztelua.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 72



## ISTANBULEN ELKARTUKO GARA (+CD)

Richard Chisholm / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. - Anjela! - esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arrairo zaude? Handik metro gutxitara, gabardina grisdu gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Haren mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen... Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

**Maila:** A2      **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €      **Orr:** 88



## PINKY PAILAZOA (+CD)

Josu Lartategi Yustos / Alex Orbe Ferreiro (i.)

Kanadaren eta Estatu Batuen arteko baso zabal eta ilunek sekretua gordetzen dute. Nor da Pinky pailazoa? Nola desagerrarazten ditu ume bakartiak? Zer da, bahitzai lea ala hiltzailea? Zergatik egiten ditu halako gaiztakeriak? Richard Smith inspektoreak pista bat du, eta pista horrek Euskal Herrira eramango du.

**Maila:** B1      **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €      **Orr:** 88



## TITARE BETE ZORION (+CD)

Miren Agur Meabe Plaza / Enrique Morente Luque (il.)

Juanek eta Mariak elkar ezagutu dute. Juan maisu erretiratua da, eta Maria, jostuna. Elkarrekin bizitzen jarriko dira, oroitzapenak eta asmoak partekatzeko. Hala ere, garbi dute oraina dela garrantzitsua. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.

**Maila:** B1      **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €      **Orr:** 88



## INFERNURANTZ (+CD)

Estibaliz Vivanco / Aritz Eiguren (il.)

Columbia Unibertsitateko Tom Bradford irakaslea 16 ustekabeen hil eta gero, Gabriel Pritchardek hildako lagunak sortutako CUMAE fundazioa ezagutuko du, Beatrice alargunaren eskutik. Aurkikuntza horrek hainbat ezusteko ekarriko dizkio Gabrieli, eta haren amesgaizto guztiak egia bihurtuko dira.

**Maila:** B1      **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €      **Orr:** 88



### APAIZ GERRILLARIAREN EZKUTALEKUA (+Cd)

Ander Izagirre / Maite Mutuberria (il.)

Aramaioko mendietan badago sarrera estuko kobazulo bat, azeriak bakarrik sartzeko modukoa. Hantxe ezkutatu zen apaiz gerrillaria, afusilatu nahi zutenengandik ihesi. Kobazuloa ezagutuko dugu, baita Euskal Herriko beste bederatziz txoko eta sekretu ere: erromatarren meatzeak, munstro ehiztarien etxeak, dinosauroak suntsitu zituen meteoritoaren erraustsak, Erdi Aroko mezu harrigarriak.

**Maila:** B2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 88



### MARATON - Athleticen historia ezberdin bat (+CD)

Lutxo Egia / Paul Caballero (il.)

Athleticen historia jokalar handien izenez abiatzen da: Pichichi, Zarra, Iribar... edo, zergatik ez, Aduriz. Athleticen historia hori klubak berak argitaratutako liburuetan ikas dezakegu. Gure istorioa (eta Athleticen historiaren zati tiiki bat), ordea, Bilboko San Francisco auzoan hasten da 1925ean eta emakume bat du protagonista: Sara Estevez 'Maraton'.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 60



### TXIMELETAK (A2) (+CD)


Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Neska txikia jaio denean, amari tximeleta zuria pausatu zaio bularrean. Sei urterekin, tximeleta more bat marraztu du amabixarentzat, baina hego bat falta zaio. Zergatik?

Geroago, abade batek min izugarria emango dio, eta neska txikiari tximeleta munstroak agertuko zaizkio ametsetan. Etxea erre orduko, tximeleta arreak ikusiko ditu...

Tximeletek beti lagunduko diote, une goxoetan eta latzetan. Batzuetan, neska txikiak bera ere tximeleta dela pentsatuko du. Eta badaki argiak hil egiten dituela tximeletak, baina norberaren eraldaketaren sinboloa ere badirela.

**Maila:** A2 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 68



### KRESALAREN TABERNA

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Emakume batek taberna bat zabaldu du hondartzan, aldi berri bat hasi nahi duelako. Banatuta dago eta ez dauka haurrik, soilik etorkizun zehazgabe bat. Zer da zoriona? Nola onartu bakardadea? Non geratzen dira okerrak? Horiek dira bere galderetako batzuk itsasoari begiratzen dionean, urtaroz urtaro. Bizitzak, mareak bezala, asko kendu dio, baina agian asko ekarriko oraindik ere.

**Maila:** A1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 68



## DORIAN GRAYREN ERRETRATUA

–A, bai, zoriotsu gaudenean, beti izaten gara zintzoak, baina zintzoak garenean, ez gara beti zoriotsuak. Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eraman zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea, zintzoa izatea baino; mundu hartan edozer barkatzen zen, hilketa ere bai, afalostean jendeari barre eragiteko modukoa izanez gero behintzat.

**Maila:** B1    **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €    **Orr:** 68



## HISTORIA ALA ISTORIAO?

Nagore Irazustaberrena / Ruth Juan (il.)

Napoleon handia gizon txikia al zen benetan? Zein da erpurua gora keinuaren egiazko esanahia? Egia al da piratek altxorak lurperatzen zituztela? Nork asmatu zuen gillotina? ...

Historiarekin jolas egiteko irakurgai duzu esku artean: gertakizun historikoen bi bertsio proposatzen dira, irakurleak asmatzeko bietako zein den zuzena, non dagoen historia eta non istorioa.

**Maila:** B1    **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €    **Orr:** 79



## NAIA ETA ESKULTORE ITSUA

Kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira errepide-bazterretan. Heriotza horien atzean pertsonen trafikoa deitoragarria eta aberastasunaren paradisua aurkitu ez duten etorkinen bizimodu latza daude. Baina, heriotza horietan zerbait gehiago ere ezkutatzen da, zerbait iluna eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren House of wax (1953) filmean bezala. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzaile Margotek argitu beharko dute.

**Maila:** A1    **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €    **Orr:** 75



## BAIONA

Salaberri, Bea / Asisko eta Dom

Baiona ezagutzeko gida da hau: hiriaren aztarnategiek erakusten duten antzinako Baiona zaharrean hasi eta egun sortzen ari diren auzo berrietaraino. Asteburuko ibilbidean bisitatuko ditugu Baionako karrika nabigagarriak, eraikin ikusgarriak, naturguneak, ostatuak, merkatuak, harresiak... eta baionesak! Baionako jende euskalduna.

**Maila:** B1    **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 €    **Orr:** 64    **Urtea:** 2019





## BILBO

Egia, Lutxo / Asisko Eta Dom

Bilbon barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Orain kale bat, gero zubi bat, hurrena historia puska bat... hiriko eskulturen inbentarioa eginez abiatuko du gidariak ibilbidea Bilboko baldosetan barrena, hiri zahar, bizi eta erakargarria eraikiz, bilbotarren bizipenen bitartez.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019




## DONIBANE GARAZI

Nora Arbelbide Lefe / Asisko Eta Dom

Historia eta kondairaz betetako hiria da Donibane Garazi gida honetan: euskara plazara jalgia zuena, Nafarroako hiriburua hau ere, gerraosteko iheslerien aterpea, negoziatorako hirigunea, bidaiarien eta historiaren bidegurutzea... Eta bai, Donibane Garazi ederra ere bada, polit-polita, zinez ikusgarria, harri gorritaz eraikia, mendiarte leunaren babesean.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019




## DONOSTIA

Auzmendi, Nerea / Asisko eta Dom

Donostian bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Hiria ezagutzera datozen biloba gazteei izeba donostiarrak egindako ibilbidea. Tabakalerako terrazan abiatuko da, eta Sokamuturra kalean bukatu, Loretopera begira. Gune eta zoko baketsuen hiria proposatzen digu, jendetza zalapartatsutik ihesi.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019



## GASTEIZ

Zubizarreta, Patxi / Asisko eta Dom

Gasteizen barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin batera korrituko ditu Gasteizko kaleak, eraikinak, parkeak, plazak, artelanak, hilerriak, tabernak, museoak, auzoak, historia puskak eta istorio osoak. Asteburu bakarrean hiri berdea goitik behera ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019



## IRUÑEA

Diez de Ulzurrun, Enrike / Asisko eta Dom

Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetariko kontuak azalduta, bertakoentzat zein bisitarientzat jakingarriak, eta askotan, ezezagunak.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019



## MAULE LEXTARRE

Allande Sokarros / Asisko eta Dom

Euskal Herrian ekialdeena dagoen hiriburua da Maule-Lextarre, tamainaz txikia, historia eta nortasun handikoa. Zer ziren zinbiteak? Nor da Matalaz? Non da Laminen etxea? Eta ur hotza eta epela batera ematen dituen Laminen iturria? Egun bakarrean burutzeko ibilbidean, lehengo eta egungo Maule-Lextarrerren argazki hurbilak jasoko dugu, eta Zuberoan barrena egiteko itzuli polita ezagutuko.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~10,15~~ 11,15 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2019



## ERDI AROKO EGUNAK

Laida Martinez

Bilbo hiribildu bihurtu zeneko aroan kokatu du Laida Martinezek bere eleberria. Fikziozko lana da, baina pisu handia dute garaiko gertakari historikoek. Besteak beste, portuko gorabeherak eta Diego Lopez de Haro eta Maria Lopez de Haro pertsonaiak agertzen dira nobelan.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 96 **Urtea:** 2016



## AMAIA UDALEKUETAN

Onintze Goitiz

Gaztetxoentzako abentura liburua ondu du Goitizek, eta Irakurketa Errazeko lanen artean kaleratu Gauminek. Amaia da protagonista: jaiotzez gorra, eta gurasoek gehiegi babesten dute. Ikasturte amaieran, udalekuetara joatekoak dira haren lagunak; Amaiak ere joan nahi du, gurasoen baimenik ez badu ere.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 62 **Urtea:** 2015



### TRAIZIOA LAKUAN

Nuria Martí Constans

Bi pasioen artean borrokan ari den neska da Ondina. Batetik Patric du, iaz ezagutu zuen kirolari ingeles bikaina, eta orain berriro itzuli dena Banyolasera, entrenatzera. Bestetik Jordi, bere oraingo mutil-lagun goxo eta lotsatia. Bihotzak ez dio garbi erakusten zer egin, eta mutilen artean ere odol usaina zabalduko da. Norekin geratuko da Ondina? Maitasun triangelua, minaz eta heriotzaz blaiturik.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 96 **Urtea:** 2014



### TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN

Ander Izagirre

Txernobilgo istripu nuklearra gertatu zenean, Juliak 13 urte zeuzkan eta aire librean jolasean ibili zen egun osoan. Igorrek 28 urte zeuzkan, soldadua zen eta zentralera lanera korrika joateko agindu zioten. Inork ez zien azalpenik eman. Orain Juliak erreportaje bat idatzi nahi du, Txernobilaren zer gertatu zen eta gaur egun ingurua nola dagoen kontatzeko. Igorri eskatu dio laguntza, katastrofearen garaiaz biek dituzten oroitzapenak biltzeko eta, Txernobil bisitatzen duten bitartean, ondoan lagun bat izateko.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 80 **Urtea:** 2014



### RIF MENDIETAKO URA

Montse Flores Pallarés

Ahmed gaztea Rubi-n bizi da, Bartzelonatik gertu, baina marokoarra da izatez, Rif-ekoa. Tati klasekide erakargarriaz maitemindu da bere bizitzan lehendabizikoz. Celes bere lagunak kamera bat lapurtzeko eskatu dio. Ahmeden anaia zaharrena atxilotze-zentro batean da, lapurtzeagatik, eta berak tentazio horri aurre egin nahi dio. Marokoko ohiturak eta familia kontuak ere ezagutuko ditugu Ahmeden abenturan.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 64 **Urtea:** 2014



### SANTIAGO BIDEAREN MISTERIOA

Fernando Morillo

Diotenez, Santiago Bideak magia egin dezake ibiltari bakoitzaren baitan. Ulises marinel zaharra da. Bere itsasontzia hondoratu zenean, bera bakarrik atera zen bizirik, eta beldurra hartu zion bizitzari. Kemen, berriz, mutil gaztea eta irribarretsua da. Itxuraz, ezin zoriontsuagoa, bizitzaz eta bere neska-lagunaz maitemindua. Biak elkartuko dira Santiago Bidean, bakoitzak duen promesa sekretua betetzeko asmoz.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 80 **Urtea:** 2014



## **IXTEBE PELLOT AZKEN KORTSARIOA**

Fernando Morillo Grande

Bizitza batzuk zailak dira sinesten. Hain dira ausart, noble, umoretsu, nekaezinak, existitu daitezkeenik ere ezin dugu ia sinetsi. Baina hor dugu Ixtebe Pellot, azken kortsarioa. Itsas-borroka etengabea, askotan hartu zuten preso. Arriskuz arrisku, sekula etsi gabe, beti egin zuen ihes. Musika eta dantza maite zituen, eta karkaraz erantzuten zion minari. Begietara begiratzen zuen. Horregatik maite zuten lagunek. Baita etsaiek ere! Hemen kontatuko dena benetakoa da, sinesgaitza iruditu arren. Prestatu. Norbait aparta ezagutzeko zorian zaude: Ixtebe Pellot, Euskal Azeria.

**Maila:** B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 72 **Urtea:** 2016



## **ATEJOLEA ETA IZAKI MISTERIOTSUA** Beldurrezko ipuinak

Aitor Arana

Beldurrezko bi ipuin Beldurra.  
Zer da beldurra?  
Izaki misterioak izar beldurgarriak benetakoak ote dira?  
Beharbada ez, eta gure beldurrek sortzen dituzte.  
Edo beharbada gure desiren irriek.  
Baina kontuz, beharbada bene-benetakoak dira.  
Eta egunen batean mamu bat zure logelan sartu nahian ibiliko da.  
Edo beharbada zure desirak betetzeko aukera duzu,  
baina hori ez da zuk uste bezain ona...  
Bi istorio beldurgarri hauetan bezala.

**Maila:** A2-B1 **Prezioa:** ~~12,50~~ 10,50 € **Orr:** 80 **Urtea:** 2017



## **LAMIA**

Josu Lartategi

Lamiak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamia gazte baten ibilaldia ezagutuko duzu. Kostaldetik barrualdera joango da, kaio baten laguntzaz, erreka garbiei zerbait oso arraroa gertatzen ari zaielako: urek kolore gorria dute. Zergatik aldatu da uren kolorea? Zer gertatzen zaie errekei? Lamiak misterioa argitu nahi du. Horretarako, ez da bakarrik ibiliko, ez horixe! Lagun berezi-berezi batzuen laguntza izango du. Istoria honetan beste garai batean sartuko gara, garai zaharra, antzinakoa, eta pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzu: Tartalo, Galtzagorri, Ipotxak, Herensugeak...

**Maila:** A1.2 **Prezioa:** ~~6,95~~ 5,90 € **Orr:** 48 **Urtea:** 2016



## **BALEA**

Josu Lartategi

Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakarti batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atseden hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaleak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleek ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera. Istoria honetan Haundi eta Pott izeneko baleak ezagutuko dituzu: balea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

**Maila:** A2.2 **Prezioa:** ~~6,95~~ 5,90 € **Orr:** 48 **Urtea:** 2016



## ASTEROIDEA

Zaharren Egoitza leku lasaia da, lasaiegia. Bertan, zaharrek bizitza egiten dute. Hiltzeko oso denbora gutxi falta zaiela uste dute eta horregatik ez daukate itxaropen handirik etorkizunean. Nahikoa da telebista ikustea, jatea, trikotatzea, paseotxoak egitea, lo egitea... eta berriz ere dena errepikatzea. Bisitak ere badituzte, baina oso gutxitan, senideak ez direlako ia inoiz zaharrekin gogoratzen.

Egun batean, ordea, telebistak berri harrigarria eman du: asteroide erraldoia dator luraren kontra eta munduaren azkena izango da. Une horretatik aurrera, bizitza erabat aldatuko da Zaharren Egoitzako lau atso-agurerentzat, Antontxu, Mikela, Boni eta Eukerentzat.

**Maila:** A2.2 **Prezioa:** ~~6,95~~ 5,90 € **Orr:** 48 **Urtea:** 2016



## MUSEOKO HILTZAILEA

Josu Lartategi

Nork mehatxatu du eskultorea? Nork hil nahi du eta zergatik? Luigik laguntza eskatu dio Martin Iriberrri ikertzaileari. Diruz txarto zabiltzanean ezin diozu lan-  
eskaintza bati ezetz esan, nahiz eta etsai batena izan. Horixe gertatu zaio Martini. Lan erraza dirudi hasieran. Sakonago ikertzen hasi denean, ordea, ulertzen ez dituen gauza gehiegi dagoela konturatu da.

Istorio beltz honetan Bilbon zehar ibiliko zara, Martin Iriberrri ikertzaile pribatuarekin. Galtzaileen eta irabazleen hiri horretan edozer gertatu ahal da, baita hilketa ikaragarriena ere.

**Maila:** B1.2 **Prezioa:** ~~6,95~~ 5,90 € **Orr:** 48 **Urtea:** 2016



## ELHUYAR HIZTEGIA

Eus / Gaz - Gaz / Eus

**Prezioa:** ~~48,00~~ 40 €



## ELHUYAR HIZTEGIA

Eus / Fra - Fra / Eus

**Prezioa:** ~~26~~ 22 €



## ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA

**Prezioa:** ~~25~~ 21 €



## SINONIMOEN KUTXA

**Prezioa:** ~~20~~ 17 €



## EUSKAL GRAMATIKA OSOA

**Prezioa:** ~~64,48~~ 54,80 €



## JOLASAK / DENBORA PASA

### HITZ JARIOA



Bi aurpegi dituen karta jolas dibertigarria. Aurpegiaren alde batean jolaseko 10 kategoriak irudikatzen dira, eta beste aldean, kolore ezberdina duten hiru letra. Izan zaitez lehena kartak adierazten duen kategoriako hitz bat aurkitzen, kolore berdineko letrarekin hasi behar du.

**Prezioa:** 12,95- 11 €

### DENBORAZUP



Noiz egon ziren bikingoak Baionan? Zein urtetan izan zen Gernikako bonbardaketa? Ba al dakizu noiz hil zen Kaxilda Hernaez anarkista? Ezetz asmatu noiz jaio zen Katalina Erauso neska soldadua! Zer gertatu zen aurrena, Athletic Cluben sorrera edo Lehen Mundu Gerra? Ezagutzen al duzu zure herriaren historia?

Elkarrekin ikasi eta jolasteko aukera ematen dizu DENBORAZUP jolasak! Data garrantzitsuak kolokan gorde eta kartarik gabe geratzen den lehen jokalaria izango da txapelduna! 110 une historiko aurkituko dituzu karta berezi hauetan ilustratuak, euskal kultura eta historia uztartzen dituen bilduma paregabea! 110 karta desberdin, 15 karta berezi

1/8 jokalaria

**Prezioa:** 15- 12,75 €



## Egin zaitez harpidedun!

IFK/NA .....  
CIF/DNI .....  
**Izen-abizenak** .....  
Nombre y apellidos .....  
**Helbidea** .....  
Dirección .....  
**Posta-kodea** ..... **Herria** .....  
Código postal ..... Localidad .....  
**Herrialdea** ..... **Tel.:** .....  
Provincia .....  
**Ordaintzeko era** .....  
Forma de pago .....  
**Banku bidez** ..... [20 digitu]  
Domiciliación bancaria .....  
**Bankuaren izena** .....  
Nombre del banco .....

**Sinadura**  
Firma

#### Urte osoko harpidetza

Hego Euskal Herria eta Espainia:

**29 euro**

Ipar Euskal Herria: **36 euro**

Europa: **50,5 euro**

Europatik kanpo: **83 euro**

Informazioa gure fitxategian gordeko da. Informazio hori isilpekoa da. Interesdunak ezaba edo alda dezake. Datuen kontrolak eta trataerak Norbanakoen Datuak Babesteko Lege Organikoari men egin behar diote.

La información será guardada en nuestro fichero. Dicha información es confidencial. El interesado puede modificar o borrarla. El control y tratamiento de los datos deben cumplir la Ley Orgánica de Protección de Datos Individuales.

\* Kontrakorik agindu ezean, harpidetza urtero berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará cada año.



• Aukeratutako liburu eta diskoen eskaera orria bete letra garbiz idatziz.

• Ordaindu beharrekoa aurrezki kutxan sartu, euskaltegiaren izena ondo azalduz.

Laboral Kutxa:

ES31.3035.0072.06.0720034048

## eskaera orria

• Eskaera orriarekin batera ordainagiria zure irakasleari eman.

• Eskaera egiteko epea

**Azaroaren 27an bukatuko da.**

Jarraian egingo da banaketa.

**KONTUZ:**  
epea amaitu ondoren ez da eskaerarik onartuko, nahiz eta ordainduta egon.

**www.aek.eus**  
**946 464 000**

izena eta abizena

helbidea

herria

herrialdea

tel

euskaltegia

|  | ale<br>kop. | bakoitzeko<br>prezioa | prezio<br>orotara |
|--|-------------|-----------------------|-------------------|
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |
|  |             |                       |                   |

### ARABA

Arana kalea, 30 behea  
01002 GASTEIZ  
araba@aec.eus

### BIZKAIA

Txakur kalea, 1-4.a  
48005 BILBO  
bizkaia@aec.eus

### GIPUZKOA

Iztueta kalea, 3 behea  
20001 DONOSTIA  
gipuzkoa@aec.eus

### IPARRALDEA

Marengo karrika, 22  
64100 BAIONA  
iparraldea@aec.eus

### NAFARROA

Errekoleten kalea, 16 behea  
31001 IRUÑEA  
nafarroa@aec.eus

**aec**